

## Gizarte Ekimeneko ikastetxeak

### **ELA, STEILAS, CCOO eta LAB sindikatuek Azaroaren 7tik Abenduaren 5era bitarteko greba deialdia erregistratu dute**

**Sindikatuok, orain arte bezala, elkarrizketa eta adostasunak ahalbidetzeko ahalegin zintzoak egingo ditugu. Patronalak eta Hezkuntza Sailak dagokien arduraz jokatzeko badute, adostasunak erdiestea posible izango da; bestela grebekin jarraitu beste biderik ez digute utziko**

Sektore honetako langileak 27 greba eguneko mobilizazio dinamika bat babesten ari dira, 10 urtez berriro gabe daukaten Lan hitzarmena eguneratzeko borrokan. Gaur, pasa den urriak 15eko prentsaurrekoan aurreratu genuen bezala, azaroaren 7tik abenduaren 5era bitarteko greba deialdia ofizialki erregistratu dugu sindikatuok.

Lan Hitzarmena berritzeko helburu horrekin, sindikatuok langileen eskaerei erantzunez gatazka hau bideratzeko makina bat saiakera gauzatu ditugu. Negoziazio prozesuan erabateko zintzotasunez aritu gara, malguak izan gara gure planteamenduetan eta gatazka bideratzeko ardura daukaten Patronal zein Hezkuntza Sailarekin elkarrizketa eta negoziaketa erreala bultzatzeko moduak jorratu ditugu.

Familien ardura ere ulertuz eta elkarbanatuz, ELA, STEILAS, CCOO eta LAB sindikatuok adostasunetara iristeko gure borondate eta aldartea berretsi nahi dugu; eta, orain arte bezala, elkarrizketa eta negoziazio prozesu bati heltzeko prest gaude, beti ere langileen eskaerei erantzunez gatazka bideratzeko ardura eta aukera duten eragile guztien inplikazio eta parte hartzea bermatzen badu, eta adostasunak ahalbideratuko dituzten eduki eta planteamenduak bermatu aurretik greba dinamika bertan behera uzteko baldintzarik eskatzen ez badu.

Hau guztia kontuan izanik, PRECOko akordioak Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako gatazka bideratzeko egokia den elkarrizketa prozedurarik jasotzen ez duen arren, formaz haratago sindikatuontzat adostasunak erdiestea ahalbideratuko duen elkarrizketari bide ematea da funtsezkoa. Horregatik, ELA, STEILAS, CCOO eta LAB sindikatuok elkarrizketa aurrera eramateko prozedura proposamen bat eramango dugu asteleheneko LHKko bilerara.

Tamalez, sektoreko patronala zein Hezkuntza saila erabateko arduragakeriaz jokatzeko ari dira prozesu honetan guztian, eta ez dute gatazka bideratzeko mugimendu edo pausorik ematen, greba dinamika indartzen ez den heinean. Erabat argi geratu da hau berriro ere azken aldian, pasa den ikasturteko azken greba egunetik (maiatzak 9) 5 hilabete igarota, ez baita inolako pausorik egon patronalen aldetik, ez eta Hezkuntzatik ere, ELA, STEILAS, CCOO eta LAB sindikatuok hilabeteko greba abian jartzeko adostasuna publiko egin dugun arte.

Patronalak eta Hezkuntza Sailak dagokien arduraz jokatzeko badute, langileen eskaerei erantzungo dieten eduki eta planteamenduak lantzeko eta bultzatzeko prest badaude eta horretarako beharrezkoa den elkarrizketa prozesu eraginkor batean murgiltzeko prest badaude, adostasunak erdiestea eta gatazka bideratzea posible izango da; bestela, beste behin ere grebekin jarraitu beste biderik ez digute utziko.

Euskal Herrian, 2019ko urriaren 25an



## Centros de Iniciativa Social

### Los sindicatos ELA, STEILAS, CCOO y LAB registran la convocatoria de huelga del 7 de noviembre al 5 de diciembre

**Los sindicatos, como hasta ahora, haremos un esfuerzo sincero por posibilitar el diálogo y los acuerdos. Si las patronales y el departamento de Educación actúan con la debida responsabilidad, será posible llegar a acuerdos; de lo contrario, nos obligarán a seguir con las huelgas**

En su lucha por actualizar un convenio paralizado desde hace diez años, las trabajadoras y trabajadores de los centros de iniciativa social están apoyando una dinámica de movilización que ha incluido 27 días de huelga durante los dos últimos cursos. Tal como avanzamos en la rueda de prensa del pasado 15 de octubre, hoy los sindicatos hemos registrado oficialmente la convocatoria de huelga de un mes y que abarca desde el 7 de noviembre al 5 de diciembre.

Con ánimo de renovar el convenio colectivo, los sindicatos hemos hecho múltiples intentos para resolver el conflicto de manera que las reivindicaciones planteadas sean satisfechas. Hemos actuado con honestidad en el proceso de negociación, hemos sido flexibles en nuestros planteamientos, y hemos tratado de buscar las vías para impulsar una negociación real con las patronales y el Dpro. de educación, que son quienes tienen la responsabilidad de resolver el conflicto.

Comprendiendo y compartiendo la preocupación de las familias, ELA, STEILAS, CCOO y LAB nos reafirmamos en nuestra voluntad y disposición de llegar a acuerdos. Como hasta ahora, estamos dispuestos a emprender un proceso de diálogo y negociación, siempre y cuando se garantice la implicación de todos los agentes que pueden y deben dar una salida al conflicto, y no se plantee como condición previa la renuncia a la huelga, sin que antes se garanticen los contenidos y planteamientos que lleven al acuerdo.

En consecuencia, a pesar de que el acuerdo sobre el PRECO no recoge ninguna fórmula de diálogo adecuada para resolver este conflicto, lo fundamental para los sindicatos, más allá de formalismos, es abrir un proceso de diálogo para poder llegar a acuerdos. Por ello, ELA, STEILAS, CCOO y LAB llevaremos a la reunión del lunes en el CRL una propuesta de procedimiento para avanzar en el diálogo.

Por desgracia, tanto las patronales del sector como la administración están actuando durante todo este proceso con una irresponsabilidad total, de tal forma que únicamente hay avances en sus propuestas y planteamientos a medida que intensificamos la dinámica de huelgas y movilizaciones. Esto ha quedado una vez más en evidencia durante los últimos meses, ya que habiendo transcurrido cinco meses desde la última jornada de huelga del curso pasado, el 9 de mayo, ni las patronales, ni Educación han dado paso alguno hasta que ELA, STEILAS, CCOO y LAB hemos hecho público el acuerdo de emprender una huelga de un mes.

Si las patronales y el departamento actúan con la debida responsabilidad, están dispuestos a trabajar e impulsar contenidos y planteamientos que den respuesta a las reivindicaciones laborales, así como a participar en el proceso de dialogo efectivo necesario que ello implica, será posible llegar a acuerdos y resolver el conflicto; si no, una vez más nos obligarán a seguir con las huelgas.

Euskal Herria, 25 de octubre de 2019



